

BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Rain Energy proiektuan bazkide garrantzitsuak ez dira soilik gure produktua erosiko dutenak, baizik eta batez ere gurekin batera lan egingo duten pertsonak eta erakundeak. Hau da, gure proiektua aurrera ateratzen lagunduko diguten bazkideak dira.

Alde batetik, bazkide estrategikoak izango ditugu. Hauek bereziki enpresa handiak eta energia-enpresak izango dira. Enpresa hauek gure produktua beraien instalazioetan erabiltzeko aukera emango digute eta, aldi berean, gure gailua probatu eta hobetzen lagunduko digute. Horri esker, gure produktua fidagarriagoa bihurtuko da eta beste enpresentzat ere erakargarriagoa izango da.

Bestetik, marketin bazkideak izango ditugu, hau da, sare sozialetan eragina duten pertsonak (influencerrak) eta jende ospetsua. Haien bidez gure produktua publizitatuko dugu, jende gehiagok ezagutzeko eta interes handiagoa pizteko. Hauek izango dira gure marketin-bazkideen funtzio nagusiak:

- gure produktua sare sozialetan erakustea,
- jendearen arreta erakartzea,
- markaren irudia indartzea.

Bestalde, beste bazkide posible batzuk ere edukiko ditugu, hala nola udalak eta erakunde publikoak. Hauek gure produktuari ikusgarritasuna emango diote espazio publikoetan eta energia berriztagarrien aldeko proiektuetan parte hartzea ahalbidetuko digute. Gainera, erakunde hauen laguntzari esker, gure produktua herritar askoren eskura heldu ahal izango da.

Bazkide garrantzitsuak izatea funtsezkoa daguertzat, arrazoi askorengatik:

- Enpresa handiek gurekin lan egiten badute, gure produktua fidagarriagoa izango da.
- Erreferente diren enpresek gure produktua erabiltzen badute, jendeak gehiago konfiatuko du gudan.
- Fende ospetsuak (influenzerrak) gure produktuari buruz hitz egiten badu, gero eta ezagunagoa izango da.
- Udalaren eta erakunde publikoen bidez, gure proiektua toki gehiagotara iritsiko da.

Amaitzeko, esan daiteke bazkideei esker Rain Energy ez dela produktu soil bat izango, baizik eta babestutako, sendotutako eta etorkizuneko produktu bat, lankidetzaren bidez haziko dena.